



Regil Zeharkaldia, Euskadiko taldekako Txapelketa jokoan dela, asteburu honetan

2018ko martxoak 9. Bihar eta etzi, hilak 10 eta 11, jokatzekoa da Regil Zeharkaldiaren 43. ekitaldia Europako Mendietan. 2018ko Euskadiko Taldekako Txapelketa izango da, aurtengo azkena Euskal Mendizale Federazioaren aldetik, Banakakoa eta Bertikala jokatu baitira jada.

Parte hartzekotan diren kirolariak, eta bereziki antolakuntza, eguraldi baldintzei begira jarrita dago guztiz, iragarpenek ez baitute itxura onegirik. Haizete handia espero da, eta horrekin antolakuntzak gaur bertan iragarri du biharko ibilbidea aldatu egin duela, zeharkaldia mendi goietatik babesera jaitsiz.

Mendi Eskiko Euskal Selektzioaren izenean ondoko bikoteak arituko dira:

SENIOR	JUNIOR
Mikel Navarro-Juanjo Goikoetxea Igor Alzelai-Iñigo Lariz Igone Campos-Lide Leibar	Rafa Urbizu-Ander Gabiria Aitor Ajuria-Ibai Otaegi

Nahia Quincoces eta Iñigo Martinez de Albornoz Pierra Menta proba entzutetsuan parte hartzera doaz eta hara begira prestatzen ari direnez ez dira Europako mendietara joango.

Martxoak 18: EMF-ren XL. Zeharkaldia Panticosan

Mendi Eskiko denboraldia bere azken txanpara arrimatzen ari da. Martxoaren 25ean Espainiako Taldekako txapelketa jokatu da Candanchun, eta han itxiko du denboraldia Euskal Selektzioak.

Martxoaren 18a da beste egun seinalatua: Euskal Mendizale Federazioaren XL. Zeharkaldia egingo da geun horretan, Panticosan.

Izen emateko epea igande honetan bertan, hilak 11, agortuko da, beraz orain da garaia lagunarteko hitzordu bikain honetan izen emateko.

Argibide gehiago gure webgune ofizialean: http://www.emf-fvm.org/archivos/entradas-noticias/Travesla_Esqul_EMF_2018-Eus.pdf



	Proba	EH Txapelketa	EH Kopa	Esp Txapelketa	Munduko Kopa
01-13	Open Vall de Boí Boí Taüll			Bertikala	
01-14	Open Vall de Boí Boí Taüll			Sprint	
01-27	World Cup Andorra Font Blanca				Open Banaka eta Bertikala
02-03	Causiat Extreme Candanchu	Banakakoa	1.a	Banakakoa	
02-17	Bandres-Karolo Izaba				
02-18	Bandres-Karolo Memoriala Izaba	Bertikala	2.a		
03-03	Alti Toy Luz Ardiden				
03-04	Alti Toy Luz Ardiden		3.a		
03-10	Andres de Régil Europako Haitza	Taldeka	4.a		
03-18	EMF XL Zeharkaldia Panticosa				
03-25	Rally V.de Aragón Candanchu			Taldeka	



Mendi Eskiko Euskal Taldea



EMF-FVM